

zakilixut

© Olariagak



Eider Goenaga | IBARRA

ATZEKOZ AURRERA

Txondorreko ikatzaren beroa

Belaunaldi berriei
ohitura zaharrak
erakusteko astebetez
eduki dute txondorra
piztuta Ibarra



EDURNE KOCH

Ikazkinak jo eta su ari dira lanean, gau eta egun, txondorretik ikatza ateratzeko.

Ibarran, kiroldegiaren ondoan, txondorra piztu zuten iragan ostegunean, eta pizturik dago oraindik ere. Baina ez luzarorako, bihar baitira itzaltzekoak. Leitzatik etorritako ikazkin zaharrek egon gara, garai batean ikatza nola egiten zuten ikusteko eta ikasteko. Hain zuzen ere, helburu horrekin egin dute txondorra Ibarra, Uzturpe Ikastolak antolatutako Kultur Astearen barruan.

Leitzako eta Goizuetako bi ikazkinek egin dute txondorra, eta ostegunetik lanean ari dira, jo eta su: itzal ez dadin eta bertatik ikatza ateratzeko. Txondor batetik 4.000 edo 5.000 kilo ikatz atera daitezkeela dio Leitzako ikazkinak, eta kopuru hori erabiltzen den egurren kalitatearen arabera dela. Ondo zaindu beharreko prozesua da txondorra egitea, dena ondo ateratzea nahi bada, eta batez ere kalitateko ikatza lortu nahi izanez gero.

«Basoan egurra biltzea da lehen urratsa, eta hori printzatu ondoren ekiten zaio txondorra egiteari», azaldu digu Leitzako ikazkinak, pazientzia handiz —egunero Uzturpe Ikastolako haurrekin ohituta edo—. Tximinia zuzen eta ondo egin behar da, txondorrek emaitza onak eta egitura egokia izan dezan, eta alkatea deritzon —batek daki zergatik— makila luze, zuzen eta sendo bat erdian sartuta lortzen dute hori. Ondotik tximinia egurrez estaltzen dute, eta orbela botatzen diote gainera, gero bota beharreko lurra tximinia barrura sar ez dadin, horrek ikatzaren kalitatea txartu baitezake. Guztia

ondo-ondo estali behar da, estali gabeko zulorik egongo balitz, ikatza ez bailitzateke egosiko.

Arrisku handiko lana

Egun erabiltzen ez den sistema da txondorra, denbora eskatzen duelako eta ikazkinek arrisku handia izaten zutelako. Behin eta berriz azpimarratu zigun gauza bera Leitzako ikazkinak. Izan ere, tximiniatik txigarra botatzen da, eta orduan hasten da ikatza egiteko prozesua. Ikazkina txondor gainera igo eta txingarrari eragiten hasten denean, orduan dago arriskua. «Arriskutsua da oso; barrura eroriz gero, akabo zureak».

Horren ostean, ikatza atera eta txondorra itzal ez dadin zaindu behar da. Hala, bi ikazkin nafarrek aste osoa eman dute Ibarra kiroldegian lo egiten. Eskuare berezi batekin ateratzen dute ikatza; lur zati bat altxatu, eta bertan aurkitzen dituzten ikatz zatiak ateratzen dituzte, eta hori estali ondoren, beste lur zati bati ekiten diote.

Ikazkinek egunero izan dituzte entzule Uzturpeko haurrak. Aspaldian desagertutako lanbide eta ohitura zaharrak ikasteko gogoz, edo klasetik irteteko grinarekin, atzo arratsaldean joan zitzaizkion zazpi urteko haurrek jakinmin handiz egiten zizkieten galderak ikazkinari. Hark ondo baino hobeto ikasitako prozesua pazientzia ikaragarri azaldu zien. Antzematen zaio ohitura handia duela, helburu horrekin baino ez baituzte egiten egun antzina hain ohikoak ziren txondorrek.